

EGUNA IRUDIETAN



LOREAK PRIEDEREN ESERLEKUAN. Juan Priedek Orioko delegatu gisa egon behar zuen lekuan loreak jarriz ekin zioten Kongresuari sozialistek, atzo goizean, Donostiako Kursalean.



BLANCOREN HITZALDIA. Jose Blancok, PSOEko zuzendaritza federalaren izenean, PSE-EEko zuzendaritza berriari leialtasuna eta diziplina eskatu zien Kongresuko partaideei, goizean egindako hitzaldian.



ELKARRETARATZEA EGUERDIAN. Kongresua eten egin zuten eguerdian, Juan Priederen hilketari gaitzesteko elkarretaratzea egiteko. Ibarretxe eta EAJ, EA, IU eta PPko ordezkariak ere sozialisten ondoan izan ziren.



REDONDO DELEGATU. Nicolas Redondo PSE-EEko idazkari nagusi ohiak delegatu gisa hartu zuen parte Kongresuan. Botoa Carlos Totorikaren alde eman zuela aitortu zuen.

zuen. «Noren alde egin erabaki gabe eta zalantzan etorri direnak uxatu ditu Totorikak bere diskurtsoarekin», adierazi zuen delegatu batek Kursaleko korridoreetan bozketari ekin baino minutu batzuk lehenago.

Euskal Sozialismo Berriaren ordezkari Gemma Zabaletak Kongresuaren bezperako egunetan behin eta berriro adierazi duenez, delegatuen boza sekretua da, eta hautagaien diskurtsoek alde aurreko erabakien zentzua aldaraz ditzakete. Karta hori jokatu behar zuen Zabaletak «ustekabekoa» eman eta Lopez eta Totorika garaitzeko, baina azkenean ez zen halakorik gertatu, eta bozen %6 besterik ez zuen lortu. «Bagenekien aukera gutxi genuela, baina ez genuen uste hain babes gutxi izango genuenik», adierazi zuten haren laguntzaileek. Alderdi barruan korrante moduan funtzionatzeko asmoa berretsi zuten ESB ildokoek.

Gaur, zuzendaritza berria

Partida nagusia irabazi ondoren, Patxi Lopezek beste bi frontetan erakutsi beharko du bere nagusitasuna. Atzo iluntzean eta gauean eta gaur goizean oinarritzako txostenari egindako zuzenketak bozkatuko dira. Redondoren ildoarenak izan dira zuzenketa mamitsuenak, eta txostenaren bi atal goitik behera aldatu nahi dute.

PSEko zuzendaritza berriaren osaketan ere Redondoren ildoak «gerra» emateko asmoa erakutsi du. Lopezek bere zuzendaritzarako proposamena aurkeztuko die delegatuei gaur eguerdiz, eta, gehiengo lortu ezean, beste sektoreekin adostasunak erdietsi beharko ditu idazkari nagusi berriak. Badaezpada, PSOEko antolakuntza idazkariak sarrera hitzaldian mezu argia bidali zien hautagai eta sektoreei, eta baseak hautatutako buruzagiaren atzetik joatea «eskatu» zien. Redondoren garaiko barne zatiketa gainditu eta bateratuta eta «integratuta» ateratzea da alderdi sozialistaren erronka. Patxi Lopez aukuratu dute helburu horretarako.

Batasunik handiena lortzen saiatuko dela esan du Lopezek

«Alderdiaren indar guztiak» ETA amaitzeko jarriko dituela adierazi du

Axun Erzibengoa | DONOSTIA

Patxi Lopezek indarrak batzeko ahalegina egingo duela adierazi zuen irabazle izendatu ondoren eskaini zuen prentsaurrekoan. «Emaitzak jakin ondoren, esan nahi dut hemen ez dagoela ez garailerik ez garaiturik, helburu jakin baterako indarrak batzeko prest dauden euskal sozialistak baizik». Ildo horretan, alderdiko zuzendaritza osatze aldera ildo guztietako ordezkariak hitz egiteko asmoa azaldu zuen, «batasunik handiena lortzeko».

Idazkari nagusi kargua hartzeak dakarren erantzukizuna aipatu zuen Lopezek. Juan Priede eta mehatxupean diren

hautetsi sozialistak aipatu zuten, eta bere lehen helburua ondokoa izango dela adierazi zuen: «Alderdiaren indar guztiak, eta ez dira gutxi, ETA amaitzeko jarriko ditut». Hartutako konpromisoekin «leial» jokatu nahi duela esan zuen.

Gemma Zabaletari eta Carlos Totorikari eskerrak eman zizkien, «hautagaitzek eztabaidari ekarpen handia egin diotelako, baita askatasunari eta gure alderdiaren pluraltasunari ere».

Kongresuaren ondotik alderdi sozialistak bere historia-ko etapa berria hasiko duela adierazi zuen. «Nortasun propioa duen euskal sozialismoa izango da».

EAJri buruz ere mintzatu



Hiru hautagaiak besarkaturik, bozketen emaitza jakin ondoren.

zen Lopez. Alderdi horrekin dagoen «akordio posible bakarra batasun demokratikora daraman akordioa» dela esan zuen. PSE-EEK EAJrekin gobernurako akordiorik ez duela aurreikusten esan zuen, oposizioan jarraitzeko asmoa dutela. «Gu ez gara nazionalistak dauden tokira joango, beraiek

autonomismora etor daitezen nahi dugu; askatasunaren eta pluraltasunaren defentsara».

Ildo horretan, Batasuna berehala bakartzea nahi dutela esan zuen, eta alderdi horrek legitimitaterik ez duela erantsi. «EAJri exijitzen diogu ez dezala lagundu Batasunak gobernatzea».

GALTAILEAK

CARLOS TOTORIKA

«Ideien eztabaidan jarraitu behar da»

Carlos Totorikak oso agerraldi laburra egin zuen, galdetarako aukerarik ere eman gabe. Totorikak eskerak eman zizkien berari botoa eman zioten 200 ordezkariak. «Ziur naiz defenditu ditudan ideiekin ados daudelako eman didatela botoa: iraultza demokratikoa edo askatasunaren defentsa ezinbestekoa dela esatea bezala-

ko ideiak dira horiek», esan zuen.

Ordezkatu dituen ideiekin harro dagoela adierazi zuen Totorikak, eta ideien inguruko eztabaida jarraitu beharreko lana dela iritzi dio. Kongresuak aurrera jarraitzen duela esan zuen, eta batzordeetan lana egitera deitu zuen.

Alderdikideek askatasunez erabaki dutela nabarmendu zuen Totorikak: «Eta egokiena Patxi dela erabaki badute, ni leiala izango naiz».

GEMMA ZABALETA

«Aldaketa hasi baino ez da egin»

Gemma Zabaletak umoretsu hitz egin zuen, Euskal Sozialismo Berriak Kongresuan jasotako babesa espero baino txikiagoa izan dela onartu arren. «Gure hautagaitzak berrikuntza planteatu nahi izan du bi hilabeteetan, alderdi barrura eta kanpora begira. Horri tenperatura hartu diogu, eta zero azpikoa izan da emaitza; eta

gu Karibekoak gara», azaldu zuen umoretsu.

Hala ere, zenbakiez haratago balorazio kualitatiboa egin nahi izan zuen. ESBren hautagaitza aurkeztu ahal izatea nolabaiteko garaipena dela esan zuen, «berrikuntza planteamenduak egiteko balorea izan behar baita». Dinamika berri bat aurkeztu dutela eta «aldaketa hasi» besterik ez dela egin esan zuen.

Zuzendaritzaren osaketari dagokionez, «koherentziaz» jokatuko dutela esan zuen.